



URE ETA MENDI

INGURUMEN ISTORIOEN
KARTOGRAFIA KOLEKTIBOA



LAGUNTZAILEAK

Agustin Marcos - Elena Marañón González - Elisa de los Reyes García López
Felicitas Carretero Vegazo - Guillermo Rincón Ospina - Inma Vega Sordo
- Jose Antonio Lopez - Laura Reyes Hernández - Mari Carmen Sordo
Maria del Pilar Santero Merino - Nuria Crespo - Olgalú Hernandez
Pablo Herreros Cantis - Prudencia Rodriguez Madrid
Silvia Aparicio Irusta - Usoa Jiménez Campo - Yaiza Secada
Joseba (Uretamendi Gizarte Etxea) - Ane Hervás Goiricelaya (OpenGela)
Guadalupe Pérez Sanzberro (OpenGela)

Ikertzaile-taldea:

Nicolás Gutierrez Rojas - Violeta Cabello Villarejo - Violeta Furlan

Diseinua:

Julia Alvarez Tola

Argazkiak:

Uretamendiko auzo-artxiboa



01

AUZOKIDEEN ELKARLANA MENDIAN BEHIN ETA BERRIZ PIZTEN ZIREN SUTEEKIN AMAITZEKO

1956. urtean sute handi bat izan zen Be-tolaza auzoan. Hurrengo urteetan, gutxienez, beste lau izan ziren. Lehen sute hura memoria kolektiboan geratu da iltzatuta; garaiotan etxebizitza gutxi zegoen auzoan eta horietako asko artean eraikitze bidean zeuden. Pinudiak su hartu zuen etxebizitzaren atzealdetik Arraiz mendirantz. Ez zegoen urik eta suhiltzaileak ez ziren agertu. Sua auzokideek itzali zuten, zuhaitz adarrekin sugarrak joaz. Sua gauean piztu zen eta auzokideen bizitzak salbatzea lortu zuten, baina etxebizitza asko suntsitu egin ziren. Suteen ondorioz hainbat aldiz hustu behar izan zuten auzoa. Sute horiek Arraiz menditik zetozen, baina inguruan baziren txikiago batzuk ere.

Gaur egun etxebizitzak dauden lekua sasitza handi bat zen, Betolazako ortuak dauden tokian mendia zegoen eta orain eukaliptoak dauden lekuan pinuak. Etxebizitzak sasi-diaren gainean eraiki zituzten eta mendian behin eta berriro pizten ziren suteen ondorioz pixkanaka lurra pobretuz joan zen eta arbolarik gabe geratzen. Auzokideek Betolazako finka-administratzailearekin akordio bat sinatu zuten baratzeak bertan egiteko eta, horrela, sute gehiago ekiditeko. Suteek bertan bizi ziren pertsonen eta finKaren jabeen eragin zien eta, gainera, lursailaren jabeen zegoen suhiltzaileen egindako lanetatik ordaintzea.

Ortuei esker amaitu ziren sute handiak. Azken sute handia abenduaren 28an izan zen, ez dute urtea gogoratzen. Egun hartan suteak zeuden Artxandan, Santurtzin, Basaurin eta Betolazan. Jendeak abisua eman zuen suak piztuta zeudela eta denen artean lagundu zuten ingurua husten eta animaliak ateratzen: esne-behiak, txerriak, oiloak eta abar zeuden. Urte horretan, Armada joan zen sua itzaltzera, ez baitzuten indar nahikorik.





02

URA ETA SANEAMENDUA LORTZEKO LAN KOLEKTIBOAK ETA AUZOLANAK

Betolaza eta Uretamendi auzoak sortu zirenean, nork bere etxebizitzarako ur hornidura lortu behar izan zuen. Oinez joaten ziren ur bila Soldaduren iturrira, Harriaren iturrira eta Iturrigorriko iturrira, balde eta gurdiekin. Bizilagun askok go-goan dute bidean galtzen zuten ur guztia eta egin beharreko ahalegina, diotenez, kargatutako uraren erdiarekin iristen ziren etxera. Auzotik igarotzen zen erreka edo erreka bat ere bazegoen; Elgera ibaiaren bi ibaiadar auzoan elkartzen ziren. Bertatik garbitzeko ura hartzen zuten, baina ez edatekoa. Gaur egun ibaiadar horiek Uretamendiko kale nagusiaren azpitik igarotzen dira ur-hodien barruan. Auzoko hainbat pertsonaren arabera, oraindik ere ibaiadarrok ura daramate eta Bilbon 83an izandako uholdeen ostean sartu zituzten ubideetan.

Ura etxebizitza bakoitzera eramateko, Betolazako bizilagunek konexio eta ur-harguneak egin zituzten. Dagoeneko hila den auzokide batek lagundu zien, gaiaren inguruko ezagutza baitzuen. Luze borrokatu ondoren lortu zuten Udalak uraren banaketa lanak egiteko materialak ematea. Hamabi urtez, auzokideak antolatu egin ziren etxebizitza bakoitzean ur-hargune bat jartzeko. Hasieran, auzoaren azkenean, Ingurabidea eta Betolaza artean dagoen ur-biltegitik hartzen zuten ura. Egun etxolak hor jarraitzen du eta martxan dago, baina ez du urik eramaten auzora. Gerora Mintegitxueta biltegitiko ur-konexioa ahalbidetu zuten. Handik hoditeria eta ura banatu zituzten. Auzokideek azaltzen dute urik ez zegoenean ezin zituztela komunak erabili, eta auzoaren goiko aldearekin muga egiten duen pinudira joan behar izaten zutela beharrianak egitera. Gaur egun, bizilagun askok ez dakite nondik doan hoditeria; izan ere, obra osoaren ibilbidea zehatz-mehatz ezagutzen zuen auzokidea hil zena da.

Uretamendin baziren ur putzu batzuk eta jendea bertara joaten zen bainua hartzera, egun batez auzoko bat ito zen arte. Geroztik putzuak estali zituzten, berriaz halakorik gerta ez zedin.





03

AUZOKIDEEN ANTOLAKUNTZA IRAGANEKO UHOLDEEI AURRE EGITEKO

Gogoan duten lehen uholde “handia” 77-78 urteen artean jazo zen. Betolazako auzokide askok etxebizitza galdu zuten lokatz ezpondaren eta menditik behera eroritako harrien ondorioz. Auzokideetako batek gogoan du bere lehenengo etxebizitza solairu batekoa zela eta harriz estalita geratu zela oso-osorik, teilaturaino. Udalak etxerik gabe geratu zirenak Otxarkoaga auzoan birkokatu nahi izan zituen, eta auzokideek ez dute gozoki oroitzen Udalaren jarduketa hura. Diotenaren arabera, Otxarkoagan bizi zirenek 300 pezetako alokairua ordaintzen zuten eta Betolazatik birkokatutakoei 1200 pezetako errenta eskatzen zieten. Gaur egun ere, gertatutakoak frustrazio handia eragiten du auzokideen artean, etxerik gabe geratu zirenean babesgabe sentitu zirelako eta Udalak iruzur egin zielako.

1983ko Bilboko uholdeen ondorioz, Uretamendi auzoan hainbat egunez egon ziren argirik eta urik gabe. Auzo azpitik doan erreka toaren zati bat hondoratu zen eta lohi asko eraman zuen Peñaskalera eta Iturrigorriko iturri ingurura. Hala ere, etxebizitzek ez zuten kalte handirik izan. Peñaskaleko bizilagunek, ordea, arazoak izan zituzten eta Uretamendi/Betolazako eskolara ebakatu behar izan zituzten. Hainbat egunez inguruko auzokideek tapakiak eta janaria eraman zizkieten. Uretamendira eta Betolazara kamioiak igo behar izan zituzten ura banatzera. Auzokideek gogoratzen dute nola antolatu ziren materiala, ura eta janaria Errekalde-tik igotzeko, ezin baitzen inolako garraiobiderik igo.

Uholde horietatik, bizilagunetako batek auzo osoaren batasuna eta elkarri emandako babes nabarmenak ditu. Iturrigorriko aldatsa igotzen duen bakoitzean, auzoak onera zenbat egin duen behatzen du. Dioenez, malda hura basatza hutsa zen, eta auzoari on handia egin zion konponketak.





04

MENDI GARBIKETAK URBANIZAZIO PROZESUAN

Adinekoek azaltzen dute Jesuiten garaian etxebizitzak eraikitzen hasi zirenean herri-lan asko auzokideen artean egiten zituztela, tartean mendiko iratzeak eta sasiak kentzea, zaborra garbitzea eta berdeguneak mantentzea. Asteburuetan lantaldeak antolatzen zituzten; batzuetan ordain gisa egiten zituzten lanok, etxebizitzak eraikitzeko edo berreraikitzeko jasotako maileguak itzultzeko, baina bestetan inguruaren mantentze-lanak izaten ziren.

Jarduera kolektibo asko egiten zituzten naturan. Horietako bat emakumeek egiten zuten, eskuz garbitzen zuten arropa. Iturrira joaten ziren ur bila, elkarrekin latsatzen zuten eta Betolazako etxebizitzan atzeko sasietan zabalitzen zuten arropa, eguzkitan, orbanak kentzeko. Lan handia izaten zen emakumeentzat, baina garai hartan haur zi-

renek nostalgiaz gogoratzen dute. Ezin izan da zehaztu zein urtera arte jarraitu zuten bokata elkarrekin egiten.

80ko hamarkadan, auzoko gazteak Uretamendiko eta Ingurabideko haitzarteak sakon garbitzeko antolatu ziren. Urteetan pilatutako zaborra eta txatarra atera zuten eta zuhaitzak landatu zituzten. Lan horiek egiteko tresnak Udalak jarri zituen eta lana auzokideen artean egin zuten.

Gaur egun ere, Udalak ez baditu berdeguneen mantentze-lanak betetzen, bizilagun batzuen artean egiten dituzte, lan horiek egiteko abilezia, borondatea edo tresnak dituztenen artean. Ingurua hobeto ikus dadin eta osasungarriagoa izan dadin egiten dituzte zereginok, beste uneren batean beste pertsona batek ardura bera edo antzekoren bat bere gain hartuko duelakoan, auzoarentzat garrantzitsua izango dena.

Auzokideek oroitzen dutenaren arabera, horrelako lan kolektiboak Uretamendiko Gaztelapiko parkea eraiki zuten arte egiten zituzten bai Betolazan bai Uretamendin. Egun, auzo elkarrekin kartelak jartzen dituzte eta kontzientziazio kanpainak egiten dituzte auzokideek uler dezaten osasunerako garrantzitsua dela parkeak, lorategiak eta haurren jolasguneak garbi mantentzea. Aipatzen dutenaren arabera, arazo nagusia txakurren gorotzekin lotutakoa da, gaixotasun eta zikinkeria foku baitira, baina mantentze-lan gutxiago izaten dituzten eremuetan pilatzen den zaborrak ere arazoak sortzen ditu.





05


GAUR EGUNGO ORTUAK ETA GALDU DIRENAK

Betolazako sendi askok eta Uretamendiko hainbatek ortuak dituzte inguruetan, patioan edo lorategian. Ez da oso ohikoa Bilbon, hormigoizko eraikuntzak nagusi diren hiri honetan, non “porlanik gabeko” aisialdi gune propio edo komun gutxi diren. Familia batzuek baratzea mantentzen dute auzokideak ortuak sortzeko antolatu zirenez geroztik, duela 50 urte baino gehiagotik. Ortuok Betolazako lurren finka-administratzailearen baime-narekin egin zituzten. Auzokideak elkarren artean antolatu eta lur-administratzaileari proposatu zioten baratzeak egitea belarra eta lursailak garbi eta zainduta izateko eta horrela sute arriskua gutxitzeko. Suteak ohikoak ziren eta ondorioak latzak guztientzat, bai auzoko pertsonentzat bai Betolazako finkarentzat.

Asteburuetan eta udan jendea ortuetan, patioetan eta lorategietan elkartzen da. Gaur egun baratze horietako batzuk auzoko gazteek lantzen dituzte, baita dagoeneko auzoan bizi ez direnek ere. Sasoian egon behar da ortuak dauden mendi-magalera iristeko. Ortuoko landareak, apaintzekoak eta tokiko zuhaitzak eta fruta-arbolak izaten dituzte bertan. Zenbait pertsona nagusik edo mugitzeko zailtasunak dituztenek tristuraz, goibel eta minez aipatzen dute jada ezin direla hain sarri igo ortuetara, edo ezin direla igo ere egin, eta horrelako aisialdi gunerik gabe geratu direla. Bertan ekoizten dituzten elikagaiak familien dieta osatzen dute eta etxeetako elikadura gastuak murrizten dituzte. Inguruko segurtasun faltarekin lotutako beldurrak ere aipatzen dituzte: lapurreten beldur dira, “zerbait gertatuko zaielako” beldur, edo argiztapen faltagatik ez dira seguru sentitzen. Ortuak oso gune esanguratsuak dira auzokideentzako: bertan gustura sentitzen dira, egunerokotasunaz goza dezakete, elikagaiak eta loreak landatzen dituzte eta gogobetetzen dituzten lanak

egiten dituzte. Jada baratzeetara igo ezin den auzokide batek baino gehiagok loreontzietan sartu ditu landareotako batzuk eta etxebizitza blokeen artean jarri, beste zenbaitek eraiki gabeko eremuetan landatzen dute.

Uretamendiko bizilagunek gogoan dute lehen Gaztelapikoko magalean ortuak zituztela eta Errekaldetik ere igotzen zela jendea bertako lurrak lantzerara. Mendi-magal hura pasealeku eta begiratoki bihurtzeko lanetan Udalak baratze guztiak kentzeko agindu zuen, eta ez zuen beste eremurik prestatu horiek mugitzeko. Ondorioz, auzoko jendea aisialdi eta elikadura burujabetzarako gunerik gabe utzi zuten. Oraindik ere eurek beraiek landatutako fruta-arbolak daude lehen ortuak zeuden eremu horretan: gereziendoak, sagarrondoak, madariondoak eta pikondoak, besteak beste. Ehiztarien txakur-tokiak ere bazeuden.





06

KALEKO JOLASAK ETA JAI KOLEKTIBOAK HAURTZAROAN, BELAUNALDIZ BELAUNALDI

Proiektuan parte hartu duten pertsonek gogoan dute umetan asko jolasten zirela kanpoan, kalean eta mendian. Etxeen inguruan, kalean edo mendian jolasten ziren, hiru auzoak eraiki zituztenetik 90eko hamarkadara arte, azken urte horiek barne. Galdekatutako pertsona guztiek adierazi dute 2000. urtetik aurrera haur gutxiago dagoela kalean jolasten eta ordu gehiago ematen dituztela pantailen aurrean (telebista, kontsolak, online jolasak).

50eko hamarkadatik 80ko hamarkadara joko batzuk generoaren arabera banatzen zituztela aipatu dute, nahiz eta ohikoena talde mistoak egitea zen, lagunak, neba-arreben eta lehengusu-lehengusinen artean. Denek ezagutzen zuten elkar eta jolastu ondoren familia baten edo bestearen etxera joaten ziren askaltzera, egunaren arabera. Etxeko ateak zabalik uzten zituztela eta oro har taldeka jolasten zirela gogoratzen dute.

Askok azaltzen dute mendia zela haien jolasgunea: paseoak egiten zituzten, “ekora” igotzen ziren, meategiko galeria abandonatuetan sartzen ziren, enborrekin etxolak eraikitzen zituzten... “Ekora” jolasten zirenean abandonatutako meategiko tunelaren sarrerara igotzen ziren. Garrasi egitean oihartzunak esandakoa errepikatzen zuen, eta gauzak oihukatzerara jolasten ziren. Asmatzen zituzten jokoak erronka modukoak ziren, eta ausardia puntu bat eskatzen zuten: “ekora” igotzeaz gain, galerietan sartzen ziren eta mamuak zeudela irudikatzen zuten, edo barrutik kanpora ura igotzen ari zela esaten zieten beste haurrei, beldurtzeko. Uretamendin hiru haitzarte zeuden, eta bertara botatzen zituzten auzoko etxebizitzaren obretako hondakinak. Auzoko gazteek “Ikea” antzeko lekuak zirela diote, hau da, hornidura guztiak bertan topatzen zuten jolasteko eta eraikuntzak egiteko beharrezko materiala.

Ur-presak egitera ere jolasten ziren, egungo Udaltzara (lehengo Ikastetxea) igotzeko errepidearen bihurtutako dauden tokian, bertatik jaisten baitzen euri-ura. Presak egiteko lur eta belar zatiak jartzen zituzten arroilan eta urez betetzen zenean ireki egiten zituzten, urak zenbat presa eramaten zituen ikusteko. Elgera ibaiadarrean sortzen ziren putzu naturalak bainatzen ziren, erreka ura hoderatu baino lehen. Meatzeetan sortutako putzuetan ere bainatzen ziren, edo eurek beraiek erreka ibilgua aldatuz sortzen zituzten putzuetan, lupetz handiarekin. Gogoan dute udan Betolaza auzoaren azkenean dagoen ur-biltegia bainua hartzen zutela freskatzeko eta eguzkitan geratzen zirela. Garai batean inguru hartara joan zitekeen eta biltegitik ateratzen zen ura garbia zen.

Oso ohikoa zen beste joko bat kinkina zen: korroetan jolasten zen iltze edo tresna zorrotz batekin, eta elkarri lur-eremua “lapurtzera” jolasten ziren. Lur-eremu handiena hartzen zuenak irabazten zuen. Lurra parte-hartzaile kopuruaren arabera banatzen zuten eta txandaka kinkina (iltzea) jaurtitzen zuten: kinkina jaurti, arerioarenari buelta eman eta berea lurrean sartzea lortzen zuenak lur eremu hori irabazten zuen. Txorro-morroka ere jolasten ziren, astoka aritzea ere esaten zaiona. Kantuka jolasten zen eta bi ilara egiten zituzten: bata neskena eta bestea mutilena. Bata bestearen bizkar gainera igotzen ziren salto eginez. Orobat, zapitxora, sokasaltora, aitzurketara, ezkutaketa, itsumandoka, bote-botera, kromoetara eta goitibeheretara ere jolasten ziren. Baziren joko bortitza ere, hala nola gerrikoarena, zapi zuriarena edo “la zapatilla por detrás” zelakoa. Joko horietan galtzailea fisikoki zigortzen zen. Egun Uretamendiko plaza dagoen tokian jolasten ziren joko horietako askotara.

San Juan suak 80ko hamarkadan eta Belen Biziduna

Zenbait auzokidek gogoan dute San Juan egunean (ekainaren 24an) umeen artean antolatzen zirela gau hartako sua pizteko egurraren bila. Etxez etxe eta negoziotik negoziotik ibiltzen ziren orgatlekin paperak, kartoia, egurrak eta abar biltzen. Baratzetan jasotako adarrak eta orgatilak ere baliatzen zituzten. Betolazako sua egun auzoko aparkaleku pribatua dagoen lekuan egiten zuten. Garai hartako oroitzapen alaiak dituzte eta nostalgiaz gogoratzen dute. Suak egiteari utzi zioten arriskutsuak zirelako, suteak eragin zitzaizkela eta zenbait istriputan haurrak zauritu zirelako.

Auzokide askok Uretamendiko Gabonetako Belen Biziduna oroitzen dute; hainbat eta hainbat haur belaunaldik hartu zuten parte. Ez dugu argi noiz eta zergatik utzi zioten egiteari.

Haurtzaroa 90-2000ko belaunaldientzat

2000ko hamarkadan auzoko haurrak Uretamendiko Pacheca parkean jolasten ziren. Baloia erortzen zitzaientean “amildegian behera” joan behar izaten zuten bila. Ostu-ostuka ere aritzen ziren: “Oraindik ere hor jarraitzen duten zuhaixken atzean ezkutatzen ginen”. Bestetan, kartoiak eta egurrak pilatzen zituzten eta parkean, zabuak dauden tokian, txabolak egiten zituzten jolasteko.

Pacheca parkeak berak garrantzi handia du bizilagunentzat, bertan bizikletan eta patinetean ibiltzen ikasten baitzuten eta altueretara jolasten ziren. Altueretara jolasteko leku altuetara igotzen ziren eta batetik bestera ibiltzen ziren lurra ukitu gabe. Ingurabideko tabernak dauden kalezuloetan ere ibiltzen ziren olgetan, baita egun Ingurabidetik Betolazara igotzeko eskailerak dauden tokian ere: lehen harrizko malda bat zegoen eta denak batera igotzen ziren ilaran dantza egitera.





07

AUZOA ETA MENDIA

Uretamendin bizi naiz jaio nintzenez gezotik, duela 60 urte, eta hemen bertan, auzoaren ondoan dugun mendiarekin dudan harremanari buruz hitz egin nahi dizuet, Arroiz inguruarekin dudan harremanaz. Haurrak ginenean hemen inguruan ibiltzen ginen lagunekin olgetan; gorantz egin eta dena zen mendia. Meategia esaten genion ingurua zegoen, auzoari pega-pega eginda, eta edozertara jolasten ginen hor, edozertara. Kinkinka, kaniketara, zibarekin, polizia eta lapurretara, denetan aritzen ginen olgetan. Neguan, petardoak iristen zirenean, ba hori, petardoak lupetzetan edo laten eta harrien azpian sartzen genituen, edozeren azpian.

Ba, suposatzen dut 9 edo 10 urterekin “ekora” igotzen hasten ginela, apur bat gorago zegoen. “Eko” esaten genion, baina Ur Partzuergoko ur-sarrera bat zen. Oso tunel sakona zen eta kanpotik oihu egitean oihartzuna sortzen zuen. Izen horrekin geratu zen gunea, oihartzuna lehendik bazegoen.

Pixka bat nagusixeagoak ginenean Arraizera igotzen ginen, mendi-hegal eta bidexka guztietatik. Eta han ere denetara jolasten ginen. Egur zatiak, oholak, makilak edo edozer gauza hartzen genuen arkuak eta geziak egiteko eta edozertara jolasteko. Auzoa hain dago mendiari lotuta, ezin baita banandu. Oso ohikoa zen gazteok hemen behean, Arraiz azpiko magaletan jolasean aritzea. Ez zen Bilboko beste gune bat, ez genuen urrunduri beharrik, ez ez zen batere arriskutsua eta inork ez zuen urrunekotzat jotzen. Gurea zen zerbait zen, denetarako erabiltzen genuen.

15, 16 edo 17 urterekin, Media Luna deitzen genion zelai batera igotzen ginen, eta han futbolearen aritzen ginen. Larunbatetan eta igandetan jokatzeko genituen partidak, Arraizera edo Pagasarrira igotzeko lagun nahiko biltzen ginenean.

Horrez gain, gure etxean beti izan ditugu txakurrak, aita ehiztaria zelako. Batzuetan Arraizera eta Pagasarrira igotzen ginen txakurrak paseat-

zera, bertako bide guztietatik ibiltzen ginen, ahal genuen toki guztietatik. Ohikoa zen, ez zen aparteko ezer. Arraizen magaletan auzoan bezala ibiltzen ginen. Are gehiago, ni txikitari apenas jaisten nintzen Bilbora. Niretzat Bilbo bazen auzotik bereizita zegoen zerbait, baina mendia ez, batere, inondik inora... denetarik egiten genuen bertan, ez dakit, pentsaezina zen.

Auzoan “amildegiak” esaten genion eremua ere bazegoen. Etxean lanetan egiten zutenek bertara botatzen zuten soberan zuten guztia: zeramikak, komunontziak, altzariak, plastikoak... Guretzat “ToysRUS” bat izatea bezalakoa zen. Denetarik hartzen genuen jolasteko, burdin zatiak, egurra, plastikoa, kartoizko kutxak... Zenbatetan ez genuen egin ba jolasteko kartoizko etxolarik! Noski, normala zen, ez zen... Gero, euria egiten zuenean, tira, orduan sarri askotan egiten zuen, ba uhadak sortzen ziren eta ur horrekin jolasten ginen. Presak egiten genituen makilekin, harriekin, lupetzarekin, topatzen genuen guztiarekin, eta ura apur batez geldiarazten genuen, baina beherantz jarraitzen zuen.

Beherago beste bi lagun jartzen ziren beste presa bat egiteko, eta horrela. Ez genuen ura guztiz geldiarazten, isurtzen jarraitzen zuen eta ur horrekin jolasten ginen. Dozena bat lagun edo gehiago elkartzen ginen presak egitera jolastera.

Dakizuen bezala, edo ezagutzen duenak jakingo du, eskolaren inguruan Arraizen mendi-magalak daude, pega-pega eginda. Futbol zelaiak ez zen egun ezagutzen dugun bezalakoa, asfaltatua, bere ate eta marra pintatuekin, ez, zelai harritsu bat baino ez zen. Futbolera jokatzeko genuen lekua zen, beti, jolas-orduetan arratsaldeetan eskolatik irteten ginenean. Baina, tira, esandakoa, ez zen futbol zelai bat bere horretan, lur eremu lauago bat baino ez, harriz betetakoa. Harri harretxeekin egiten genituen ateak, adibidez.

Horrela ibiltzen ginen beti, bai ni, nire lagun guztiak eta hemen bizi izan garen pertsona guztiak. Gure bizitzak beti egon dira mendiari lotuak. Ez genuen aparteko kontutzat hartzen, guretzat arrunta zen, ondo-ondoan geneukan. Are gehiago, egun Pacheca parkea dena lehen

mendi txiki bat zen, auzoko eraikin baten al-tuerakoa, eta bazegoen beste mendi bat orain parke berria dagoen lekuan. Parke hori begiratoriki gisa ere egin zuten, lehen zutabeen mendia esaten genion. Mendi-magalean baratze ugari zeuden. Esango nuke horregatik dagoela orain hainbeste fruta-arbola, bereziki pikondoak, eta mendia ere jolaslekua zen. Ez dakit nola esan, edozertara jolasten ginen edo, bestela, besterik gabe, hor egoten ginen, mendian.


Horregatik gure bizitza funtsean auzoa eta mendia izan da, gertutasunagatik. Eta, bueno, lekua ederra zen jolasteko eta bertan egoteko. Berriz diot, ez dut uste Uretamendin edo Peñaskalen edo Betolazan edo Iturrigorrin bizi izan den inor egongo denik Arraizko maldak zapaldu ez dituen. Gutxienez-gutxienez hori, ohiko kontua zelako.

Auzoan ere kale guztietan zehar ibiltzen ginen jolasean. Lehen ez zegoen ia autorik eta auzoko kaleak gure jolasgunea ziren. Adin guztietako neska-mutil asko ginen eta kalean ibiltzen ginen

olgetan. Eguneroko bizitza zen, tira, ez genuen ezer berezirik ezta ere. Ezin da esan, ez dakit... Mendiak aldatu gaituenik edo modu batekoak zein bestekoak izatera eraman gaituenik. Gure bizi-esparrua izan da... Ez dakit, gure bizimodua izan da, bizitza osoan.

Gaur egun ere, ahal dudan guztietan Arraizera edo Pagasarrira igotzen naiz, esan nahi dut, normala da. Ez naiz beste mendi batera joaten. Tira, esan nahi dut, beste mendi batzuk igo ditut, asko nire bizitzan, baina paseatzera joateko, Arraizera edo Pagasarrira joaten naiz lasai asko. Zapatilak jantzi, arropa eroso ipini eta gora igo, besterik ez, eta han egoten zara, goian, nahi duzun denbora guztian.

Zorionez, nire ustez Arraizek Abra haranaren ikuspegi ederrenetakoa dauka. Abra harana ikus dezakezu oso-osorik, itsasoraino. Ikuspegi zoragarria da, ezagutzen ez baduzue. Oso polita dago orain, oso-osoa polita. Hori zen gure bizitza, ez zen aparteko ezer. Gure eguneroko bizitza auzoa eta mendia zen. Adinaren arabera pixka bat gorago igotzen zinen edo beheko partean geratzen zinen, baina hori zen gure bizitza.



INGURUMEN ISTORIOEN KARTOGRAFIA KOLEKTIBOA

Betolaza, Ingurabidea eta Uretamendi auzoetako ingurumen istorioen kartografia kolektiboa sortzeko ideia IntegrateNbS ikerketa proiektuarekin jaio zen. Hasierako helburua tokiko eragileen ikuspuntuak ulertzea izan zen, ingurua eta auzokideentzako toki esanguratsuak ezagutzea, ondoren OpenGelak lagundutako hiri-berroneratzeko programaren esku-hartze guneak aztertu ahal izateko.

Proiektuak aurrera egin ahala, ulertzen joan ginen auzo bakoitzeko biztanleen bizipenak lurraldeari biziki lotuta zeudela. Jasotako istorioak gizarte-antolakuntzari, komunitate sentimenduari eta ingurunearen eraldaketari buruz mintzo dira. Ingurumen arazoan aurrean antolatzeke moduez ari dira, inguruko naturarekin duten lotuaren gainean, mendian bititako esperientziei buruz, lurpeko ibaietako ibilbideez edo baratzak osatzeko moduez egiten dute berba.

Horiek guztiek galdera eta gogoeta berriak piztu zizkiguten, eta esperientzia horietan sakontzeko banakako bilerak eta lantegi parte-hartzaileak antolatu genituen. Marrazkiak, eskemak eta mapak baliatu genituen elkarrekin inguruko leku esanguratsuak identifikatu eta memoria bakoitza jazo zen tokiarekin lotzeko.

Prozesu hartatik kartografia hau jaio zen, bi atalez osatuta dagoena: mapa bat, non baloreak, iraganeko ingurumen istorioak eta etorkizunerako desirak irudikatzen diren; eta partekatutako istorioak jasotzen dituen liburu bat, denboran zehar auzo horietako eguneroko bizitza nolakoa izan den erakusten duten irudiz lagundua. Liburua eta mapa elkarren osagarri dira, zein bere ñabardurekin.

INTEGRATE NBS PROIEKTUA

Kartografia hau IntegrateNbS ikerketa proiektuaren (2024-2026) emaitza da. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioen finantzaketa jaso du eta 'Hiri trantsizioak gidatzen' izeneko Europako lankidetzarekin garatu da. Hirietan naturan oinarritutako irtenbideak (SbN) ezartzeko asmoz, proiektuak ikuspegi integratzailea bultzatzen du. Horretarako, ingurumen eta gizarte arazo zehatzak jorratzen ditu klima-aldaketara egokitzeko ikuspegiaren zein gizarte ekitatearen perspektibaren bidez. Helburua parte hartze sozialerako metodologia berritzailea garatzea da Laborategi Integratzaileen bidez, eta horietan hainbat eragileren parte-hartzea bultzatzea, hala nola herri-tarrena, tokiko elkarteena, erakunde publikoena eta zientzialariena.

Bilbon, Betolaza, Ingurabidea eta Uretamendi auzoak izan ditu ardatz, hain zuen OpenGela bulegoak lagundutako hiru auzoak. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hiri-berroneratzea bultzatzeko sustatuko programa da OpenGela. Hiru auzoen historia bat bera da: jatorrizko biztanle

gehienak Espainiako landa eremuetatik 1950eko hamarkadan Bilbora etorritako migratzaileak dira. Antolakuntza kolektiboari esker auzotako etxebizitzak eta azpiegiturak eraiki zituzten, garraio publikoa lortu zuten, birkokatze prozesuei eutsi zieten eta oraindik ere baratze-sistema mantentzen dute.

Gaur egun, garai hartako jatorrizko biztanleak, haien ondorengoak eta mundu osotik etorritako migratzaileak bizi dira elkarrekin. Auzo elkar-teek gizarte-kohesioa eta bizikidetzaren sustatzeko beharra nabarmentzen dute. Eremua udalerriko natura eta aisialdi gunez inguratuta dago.

IntegrateNbS proiektuaren bitartez pertsonen arteko eta ingurune naturalarekin dituzten harremanen eboluzioa ikertzen dugu, gizarte kohesioa nola indartu dezaketen aztertzeko. Era berean, erakunde publikoetan eragitea dugu xede, bereziki Udalean, SbN inklusiboak, bidezkoak eta tokiko testuingurura egokituak diseina ditzaten.



Licencia: CC BY-SA

Erabilera komertziala eta eratorritako obrak onartzen ditu, baina horiek lizentzia berarekin partekatu behar dira.

BC3 BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE
Klima Aldaketa Ikergai

EXCELENCIA
MARIA
DE MAEZTU
2023-2027



MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y
Resiliencia



AGENCIA
ESTATAL DE
INVESTIGACIÓN

Proiektuak MICIU/AEI/10.13039/501100011033 erakundearen eta Europar Batasunaren NextGenerationEU/PRTR programaren finantzaketarekin gauzatu da eta MCIN/AEI/10.13039/501100011033 erakundeak finantzatutako CEX2021-001201-M erreferenziako laguntzaren babesa du.